

proto
ak tipo

proto_tipo_ak

Forma_Artistiko_Berrien_Nazioarteko_Bienala
Bienal_Internacional_de_Nuevas_Formas_Artísticas
International_Biennial_of_New_Artistic_Forms

Índice

0. Aurkezpena
1. Programa
2. Sra Polaroiška
3. Jose Ramón Ais
4. Diego Sologuren & Sébastien Tripod
5. Maider López
6. Laida Lertxundi & Ren Ebel
7. Elsie Ansareo
8. Elena Aitzkoa
9. Amalia Fernández

Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienala

Ekainaren 1etik 5era arte, Prototipoak. Forma Artistiko Berrien Nazioarteko Bienala egingo da, eta, bertan, duela urtebete baino gehiagotik zentroan garatutako proiektuak aurkeztuko dira.

Prototipoak begirada desberdinak dituzten artisten bienala da, jatorri oso desberdinekoak izanda eta testuinguruaren espezifikotasunetik abiatuta, esperientzia berriak planteatzen baitituzte. Forma artistiko garaikideen bidez egiten dute, beren kodeekin eta sorkuntza-denborekin, aldatzen diren agertoki eta formatuetan, era askotako lengoaiak erabiliz errealitatearen hainbat alderdi zalantzan jartzeko, errealitatea eraldatzeko aukerak zabaldu nahian.

Prototipoak proiektuak jarraipena ematen dio 3, 2, 1, Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketa programak 2013. eta 2015. urteen artean egindako lanari, eta areago zabaltzen du. 2016an sortu zenetik, alderdi sozialaren izaera, performatibitatea eta ugaritasuna ikertu nahi izan ditu artearen bidez, eta, horrez gain, ekarpena egin nahi du era kritikoan eratzeko, alde poetiko, estetiko eta politikotik.

Hasieratik, tokia elementu nagusia izan da, bizitzaren agertokia izateaz gain, hau da ekintzaren testuingurua edo edukiontzia izateaz gain, egiten dugunaren bidez, gure ekintzen bidez berez eratzen dena ere bai baita.

Toki konplexu bat, etengabe mugitzen ari dena, non elkarrekin bizi diren normala, marjinala, zalantzazkoa eta misteriozkoa, absurdoa, begien bistakoa, anodinoa eta erabat salbuespenezkoa dena, bizitzarako alferrikakoa eta funtsezkoa dena. Prototipoak programan, arreta berezia eskaintzen diogu proiektu artistikoak eta tokia ehundu, korapilatu eta txirikordatzeko aukerari, gure praktikak eta parte hartzen duten artistenak gainditzen dituzten harremanak sustatuz.

2021eko bienalean sortzaile hauek parte hartuko dute: Sra. Polaroiska, José Ramón Ais, Diego Sologuren & Sébastien Tripod, Maider López, Laida Lertxundi & Ren Ebel, Elsie Ansareo, Elena Aitzkoa eta Amalia Fernández.

PROTOTIPOAK: BIENAL INTERNACIONAL DE NUEVAS FORMAS ARTÍSTICAS

PROTOTIPOAK continúa y expande el trabajo desarrollado en el programa 3, 2, 1, Encuentro Internacional de Nuevas Formas Escénicas, entre 2013 y 2015, y nace en 2016 con la intención de explorar la naturaleza, performatividad y multiplicidad de lo social a través del arte, además de contribuir a su formación de manera crítica desde una dimensión poética, estética y política. Continuando la línea de programación de AZ, PROTOTIPOAK propone una serie de proyectos de artistas locales, nacionales e internacionales que se producen en la ciudad en colaboración con diferentes instituciones, organizaciones, grupos e individuos.

El marco de acción y pensamiento que propone PROTOTIPOAK se abre desde una de las acepciones de la misma palabra en inglés: 'prototype', que hace referencia a una primera versión de algo, a la materialización preliminar de un dispositivo, mecanismo, aparato, desde la que se derivan otras formas. En este sentido de materialización preliminar, PROTOTIPOAK es un espacio que invita a trabajar desde lo que no sabemos y promueve un modo de hacer desde la incertidumbre, la curiosidad y el cuestionamiento permanente de lo que pensamos que sabemos. En este sentido los prototipos generan realidad, abren la posibilidad de otros mundos; desde este marco de trabajo nos preguntamos qué realidad generamos y cuál nos gustaría generar.

Desde el inicio el lugar ha sido un elemento central en PROTOTIPOAK entendiéndolo, no solo como el escenario donde pasa la vida, es decir como contenedor o contexto de acción, sino como lo que se constituye propiamente a través de lo que hacemos, de nuestras acciones situadas. Desde esta perspectiva nos planteamos la pregunta de qué es estar junt*s y se nos revela un mundo en el que cohabitan cuerpos orgánicos e inorgánicos, objetos naturales y culturales, materiales e inmateriales... Un lugar complejo, en constante movimiento, en el que conviven lo normal, lo marginal, lo incierto y misterioso, lo absurdo, lo obvio, lo anodino y lo absolutamente excepcional, lo superfluo y lo fundamental para la vida. A través de las diferentes propuestas artísticas, proponemos desestabilizar nociones coherentes y estables de la realidad. Por eso, en PROTOTIPOAK, prestamos especial atención a la posibilidad de entretener, de entramar, de entrelazar los proyectos artísticos con el lugar, promoviendo relaciones que desborden nuestras prácticas y las de l*s artistas invitad*s y así intensificar líneas de afectos complejas, múltiples, simultáneas y diversas: en AZ, entre AZ y l*s artistas, entre l*s artistas, entre l*s artistas y la ciudad, entre AZ y la ciudad.

En PROTOTIPOAK queremos 'invitar' a diferentes artistas para trabajar junto a ell*s involucrándonos en el desarrollo de ideas, en la producción, en la vida mutante de los proyectos, en sus diferentes momentos y estados, situándolas y relacionándolas con el contexto, la ciudad, las comunidades, los grupos, las personas. Para nosotr*s es importante dar tiempo y atención a cada proyecto y poder entender sus particularidades, sus necesidades, las posibles relaciones, y así crear y entretener las diferentes propuestas de un modo sensible, delicado y relevante. Nuestra invitación es a iniciar un proceso creativo que a través de todo su desarrollo, y de sus ecos futuros, genere contextos, relaciones, conocimiento, recuerdos, posibilidades diversas.

ARTISTA	TÍTULO PIEZA	ESPACIO	PROGRAMA	DÍA	HORA
SRA. POLAROISKA	"Hiru haiku"	Lantegia 1	Exhibición	1 – 5 eka	11:00 – 20:00
JOSÉ RAMÓN AIS	<i>"Baso bidaiariak / Bosques viajeros"</i>	Terraza	Instalación	1 eka – 19 ira	09:00 – 21:00
			Conversaciones	06/02: Alicia Chillida 06/03: Javier Loidi 06/04: JR Ais, Fernando y Rosa	19:30 – 20:30
DIEGO SOLOGUREN & SÉBASTIEN TRIPOD	<i>"BroadWindow"</i>	Acceso Lantegia 1	Instalación	1 – 19 ira	11:00 – 20:00
			Acciones	5-9 utz 16 ira	
MAIDER LÓPEZ	<i>"Personaje"</i>	Lab2 – Lantegia 2	Exhibición	1 eka – 4 utz	11:00 – 20:00
LAIDA LERTXUNDI & REN EBEL	<i>"Notes on Working from Home. A sculpture that allows my family to live"</i>	Auditorio + cabinas de traducción	Instalación	1 – 4 eka	11:00 – 20:00
			Proyección	5 eka	12:00 & 18:00
ELSSIE ANSAREO	<i>"BIO-INT-DÍA"</i>	Atrio (ventanas Lantegia 1 + pantalla)	Exhibición	1 eka – 19 ira	09:00 – 21:00
ELENA AITZKOA	<i>"Lendia song"</i>	Bat espazioa – Lantegia 2	Exposición	22 apr – 4 uzt	11:00 – 20:00
	<i>"Ándromeda Túnel"</i>		Performance	2 – 4 ekaina	12:00
AMÁLIA FERNÁNDEZ	<i>"Expografía retrospectiva"</i>	Varios	Performance	3 - 4 eka	15:00 - 15:45 A1/A4/A7 16:00 - 16:45 A2/A5/A8 17:00 - 17:45 A3/A6/A9 18:00 B1 19:00 B2 20:00 B3

SRA POLAROISKA

Sra Polaroida
Hiru Haiku

BIOGRAFIA

Alaitz Arezana eta María Ibarretxe dira Sra. Polaroidaren sortzaileak. Alaitz Arezana Ikus-entzunezko Komunikazioan lizentziaduna da. Bere lehenengo obretatik argi utzi zuen artearen mundutik gertu zeuden ikerketa- eta sormen-praktikei lotutako bidea hartuko zuela, irudiaren interes industrialagoen bidea hartu ordez. Aldi berean, dokumentalak, publizitatea eta telebistako programak egiten ditu. María Ibarretxe Arte Dramatikoan diplomaduna da, sormen eszenikoaren eta performancearen mundutik dator, eta zenbait konpainiatako dantzaria eta aktorea ere bada. Bere lankidetzaren bidez, bi mundu horiek iragazi eta bitarteko toki batean kokatu dira. Dantza eta arte eszenikoen ikerkuntzan diharduen RUEMANIAK kolektiboko kideak dira biak.

Sra. Polaroidaren ikus-entzunezko obrak ekintzako artea, sorkuntza eszenikoa eta koreografikoa aztertzen ditu. Haien lanean, beste espazio eta hizkuntza batzuk bilatzen dituzte, eta gorputza eta kokatuta dagoen espazioarekin gorputzak duen harremana dira beti protagonista nagusiak. Narrazioaren ohiko egituretatik ihes egiten dute, eta ikusleei itxitako kontzeptuetatik ere bai. Obrak anbiguoak dira berariaz; gorputzari lotutako rolekin jolasten dute, beha dagoen begiradari egonkortasuna galarazteko, ikusten duen zera horren aurrean jarrera bat hartzera behartzeko. Ikuslea erabat murgiltzen da haiek sortutako munduan, espazioan. Hala ere, espazio hori zabalik dago; era askotako interpretazioak izan ditzake, pantailan gertatutakoari begira egon diren begiradak beste.



www.cargocollective.com/srapolaroiska



Sra_polaroiska@yahoo.com



#srapolaroiska



#srapolaroiska

Azkuna Zentroko kide den [Sra. Polaroiska](#) kolektiboak ikus-entzunezko azken proiektua aurkeztu du. Proiektu hori Prototipoak, Forma Astitiko Berrien Nazioarteko Bienalaren esparruan sortu da, hiru haiku, poema edo alegia laburren bidez, egunerokotik abiatuz zabaldu ahal izateko sortzen, itxuraldatzen eta eraldatzen diren mundu posible eta ezezagunen aniztasuna.

Haikuen kontzeptuaren inguruko ikus-entzunezko esperimentu bat, hiru testuinguru proposatzen dituena. "Begietsi natura eta ikusgaia ikusezin izatera igarotzea; begietsi bertan partaide izanik inguratzen gaituen zerua; eta begietsi bizia artearen barruan".

Hiru prototipo dira, ikusleen komunitateetan harridura uneak eragiten dituztenak, "non denboraren joanak paisaiak, ohiturak eta are gure nahiak ere zizelka ditzakeen. Eta hor, gure arreta ohikoenera eta egunerokora hurbiltzeak, gure begiradetan erritmoa aldatuz, haren edertasunaz gozatzeko aukera eman diezaguke".

ARTISTEN HITZETAN

HAIKU BAT

Egon eta arnasa hartu. Begiratu. Gure pentsamenduen isiltasuna eta haien aukera amaigabeak. Denboraren joanak ikusezin zaiguna argitzen digu, eta ikusgai zena ikusezin bihurtzen.

HAIKU BI

Izarrak, esne-bidea, galaxiak. Eremu barruan eta kanpoan. Existentiaren prototipoak, bakarrak eta errepikaezinak. Subjektiboak.

HAIKU HIRU

Auditorioa. Arreta hiperbolizatzea. Dena gerta daiteke markoaren barruan. Eta kanpoan?

IRUDIAK:

[Link FOTOS](#)

JOSÉ RAMÓN AIS

José Ramón Ais

Baso bidaiariak / Bosques viajeros

BIOGRAFIA

José Ramón Ais UPV/EHUn Arte Ederretan lizentziatura eskuratuta eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Eskolan lorezaintza-diseinuko ikasketak eginda. Proiektuan, argazki-sail bat sortu du, Kubako imajinarioa eta paisaia eratzeko izan diren prozesuez hausnartzeko, gertaera historikoak, naturako baliabideen erabilera eta ustiapena, aldaketa soziopolitikoak, eta, batez ere, eguneroko erabilerak eta jendeak naturarekin duen harreman emozionala aintzat hartuta.

Bere lan-prozesuetan uztarri berean batuta daude argazkia eta irudia postproduzitzeko teknikak, landa-lana, ikerketa historikoa eta lantzen dituen espezieak landatu eta behatzea.

Erakusketetan parte hartu izan du, hala nola Pedro G. Romerok komisariatutako *Bake-ituna* Baionako Didam-en, Rosa Martínezek komisariatutako *Nada temas dice ella* Valladolideko Museo Nacional de Esculturan, *Natural pas natural* Frac Corsen, PhotoEspañan, edo banakako *Parque natural* erakusketa Madrilgo Jardín Botánicoan. Egonaldi artistiko batzuk egin izan ditu, besteak beste *Artista x Artista* Habanan, Bilboko Azkuna Zentroan edo ART OMI New Yorken.



www.joseramonais.com



@JoséRamónAis



@joseramonais

José Ramón Aisen *Baso bidaiariak / Bosques viajeros* espazio publikorako asmatutako zuhaitz-lerrokatzearen prototipoa da. Terrazan instalatuta, arboreto bat antolatzen du lerroan, espazioa diagonalean zeharkatzen duen erabilera publikoko lorategia. *Arbolado para calles, imperios y paraísos* seriearen baitan dago, artistak Erroman egin zuen egonaldian hasitako proiektuan; zuhaitz-lerrokatze patroiak eta ereduak sortzen ditu, zuhaitzen historiatik eta testuingurutik abiatuta kontakizunak eraikiz.

Baso bidaiariak lanean Euskadiko zuhaitzen historia da ardatza: horietako batzuk jatorriz tokiko basoetakoak dira, beste batzuk beste nonbaitetik ekarriak. Lerrokatzea osatzeko, haritzak (*quercus robur*), pagoak (*fagus sylvatica*), lizarrak (*fraxinus excelsior*), palmondoak (*washingtonia robusta*) eta pinuak (*pinus insignis*) erabili ditu.

Baso bidaiariak honetan, zuhaitzek gure historiaren bilakaeran duten garrantzia azpimarratzen da, eta gure egungo harreman eta jardunbideei buruzko galderak eragiten ditu.

ARTISTEN HITZETAN

Proiektuan, elkarrizketan sartzen dira espezieak, haien jatorrizko lekuak, erabilerak eta hainbat une historikotako errealitateak. Bidaiaren, nabigazioaren eta horrek dakartzan lurralde-hibridazioen iruditeriari egiten dio erreferentzia. "A priori estatikotzat jotzen ditugun izaki batzuetan oinarrituta mugimenduaz hitz egitea interesatzen zait, eta gure pertzepzioa espazioa/denbora parametroetatik erlatibizatzea".

*Haritzak karga sinboliko handia du Euskadiko historian. Pagoa bezala, lehengaiak izan dira arkitektura-eraikuntzan eta, batez ere, ontzigintzan. "Aurkikuntzen" eta "espedizioen" garaian, itsasontzi hauek beste lurralde batzuetara iritsi ziren. Hor, hibridazio prozesuak hasi ziren, bi noranzkoetan inplikazio konplexuekin. Kaliforniako *insignis* pinua da XX. mendetik euskal paisaiaren ezaugarri izan den basotze intentsiboaren protagonista.*

Gernikako arbola sustraiak antzinako garaietan dituen kultura baten ikurra da, hizkuntza bakar baten oinordeko, foruetan oinarritutako lurralde-tradizio politikoarekin batera.

Zuhaitz bakoitzari lotuta doazen kontakizun guztiak batuta antolatzen ditu lerrokatzeak, gure bizi-inguruaz izan litekeen narrazio eraikitze edo zalantzan jartzeko. Aldi berean, zuhaitz horiek gure ekosistemaren orekan eta balantze ekologikoan daukaten garrantzia eta ondorioak aztertzen dira. Lerrokatze prototipo honek bidaiaren iruditeriari deitzen dio, hainbat lurralderen arteko elkarrizketa da, zuhaitzak lotune dituen.

IRUDIAK:

[Link fotos](#)

DIEGO SOLOGUREN & SÉBASTIEN TRIPOD

Diego Sologuren & Sébastien Tripod

BroadWindow

BIOGRAFÍA

Diego Sologuren (1985) arkitektura ikasi zuen Donostiako ETSAn eta geroago Sint-Lukas Brussels University-n, eta Hiri Ikasketetako Master batean parte hartu zuen han. Danimarkako Hamleten gazteluaren ondoan dagoen Arte Dramatikoko Eskola batean graduatu zenetik, haren ibilbidea Belgika, Frantzia, Alemania, Espainia eta Afrikan garatu da. 2014an Francis Kéré-ren bulegoan sartu zen, eta arkitektura eta diseinua ulertzeko zeukan moduan eragin zion errealitatea ezagutzeko aukera izan zuen: zintzotasuna, baliabideen ekonomia eta forma-soiltasuna. Aldi berean, bere praktika zuzentzen zuen, arkitekturak beste diziplina batzuekin dauzkan kontzeptu-mugetara eramateko. Mikroeskalatik, funtzionaltasunaren kontzeptu-mugak hedatzea aztertzen eta bilatzen zuen. Hainbat egoeratan, hibridazioan, justaposizioan, konbinazioan, parasitismoan edo testuingurutik kanpo, harreman berriak eratu nahi ditu funtzioen artean, funtzioetan zehar eta funtzioez kanpo.

Sébastien Tripod, (1987) Constructlab Suitza eta Berlin erakundeen sortzaileetako bat da. Tokiko elkarte horiek diziplinaz gaindiko eta lankidetzako profesionalen sare bat osatzen dute, eta diseinuaren, eraikuntzaren, bizikidetzaren eta ondasun komunen arteko elkarrizketaren bidez inguruneak eraldatzen hasten dira. Arkitekto independentearen jarduera garatzen du, ahalduntzea, autoeraikuntza eta lankidetzazko bezalako gaietan zentratuta.



www.diegosologuren.com



@diego.sologuren



@diego.sologuren

Diego Sologuren eta Sébastien Tripod arkitektoek Azkuna Zentroko mendebaldeko fatxadaren esku hartu dute *Broad Window* proiektuarekin. Instalazioak arkitekturaren eta ingurunearen arteko mendetasun ekologikoa birstortu nahi du, ekosistema esperimental bat eratuz.

Bizilekuaren ekologia baterantz seriearen barruan, egitura metaliko batek osatzen du instalazioa, Iparragirre kale aldera **Lantegia 1**, **Ideien Laborategiaren** sarrerako leiho zirkularretako bat zeharkatzen duena. Era sinbolikoan, egiturak fatxadaren konposizioa ulertzeko modu hedatua iradokitzen duen gailu gisa jokatzen du. Bertan, ikerketa-prozesu bat garatzen da, tokiko espezie bat landatuz hasten dena, hala nola laharra, eta zenbait ekintzarekin jarraitzen du, ikusle-komunitateekin elkarriketarako, eztabaidarako eta trukerako esparru bat sortzeko.

Etengabe bilakatzen ari den instalazioa da, honako hipotesi honi erantzuten diona: hirian animalia-espezieak babesteko guneak desagertzen ari dira pixkanaka, eta landare-espezieak etengabe desagerrarazten ari dira, arkitektura apaina edo saneamendu bisuala direla eta.

Aldi berean, eta logika berarekin, proiektu hau Lausannen (Suitza) ere garatzen ari da Strato-Logique izenarekin, estalki bateko sabai-leiho baten gainean bertikalean jarrita.

ARTISTEN HITZETAN

Baptiste Morizot filosofo eta ikertzailearen arabera, krisi ekologikoa "sentsibilitate-krisi" moduan ulertu behar da. Mundu biziarekin eta haren estimuluekin dugun harremana birpentsatzera gonbidatzen gaitu (Manière être vivant, Actes Sud, 2020). Eraikitako ingurune batean bizi bagara ere, badugu joera bertako bizidun espezieen konplexutasuna gutxieteko eta alde batera uzteko. Esate baterako, inork gonbidatu gabe asfalto-geruzak zulatu eta espazio publikoan agertzen den hibisko hau.

Gure eraikin zahartuen tipologia tradizional batzuek, arkitektura-zehaztasun gabeziek edo zirrikituek babesleku egokia eskaintzen dute organismo askorentzat, aspalditik. Antzinako harresiek, askotan, flora eta fauna arraro bat baitarazten dute, ondare historikoa eta kulturala ez ezik, ekologikoa ere irudikatzen duena.

Alhóndigaren arkitektura inguratzailearen zirrikitu periferikoari buruzko proiektu espezifikoa bat hasi nahi dugu, laborategi ekologiko bihurtzeko asmoz. Eraikinarekin elkarreaginez, eboluzionatzen ari den ekosistema biltzea ahalbidetuko duen egitura bat da proposamena. Zeharkako elementu horrek barnealdearen eta kanpoaldearen arteko trantsizio-eremu bihurtzen du ezarri zaion inguratzaile-atala. Hortik abiatuta, ikerketa aplikatu bat egitea irudikatu dugu, txertatutako espezie biologiko bakoitzaren potentziala zalantzan jarriz eta hortaz espekulatuz. Espezie edo talde biotiko bakoitza txertatzeko modua geruza-printzipio batetik abiatuko da. Denboran zehar bilakatzen eta egokitzen joango da, eta elkarren arteko mendetasuna bilatuko du ekosistema egonkor bat bermatzeko era gisa.

MAIDER LÓPEZ

Maidier López

Personaje

BIOGRAFIA

Maidier López artistak bere lanean espazio publikoan eta arkitekturan esku-hartzeak egiten ditu. Gauzen eta tokien estatismoarekin hautsi, negozioaren lurraldea ireki, eta ikusteko eta harremanak izateko modu berrien bila eramaten gaitu.

Haren obra Estatuan eta nazioartean erakutsi da, hala nola Veneziako bienalean, Istanbulen, Sharjah-en eta Prospect-en. Espazio publikoan egin ditu proiektuak, adibidez, Ataskoa, Polder Cup eta Playa-n; eta erakusketetan hartu du parte, esate baterako:

Arnasa, Arte Ederren Museoa, Bilbo; Prospect 4. Contemporary Art Triennial. New Orleans (2017); *1645 Tizas*. Matadero, Madril (2016); *Desplazamiento*. Koldo Mitxelena eta MARCO (2015), Play Time. Les Ateliers de Rennes, 4^a biennale d'art contemporain. Rennes. Frantzia. (2014); *Mom, I am Barbarian?* Istanbulgo 13. Bienala (2013); *Mountain*. Lower Austria Contemporary (2013), *Polder Cup*, *Skor and Witte de With*, Holanda (2010), *Eclats*, Pompidou-Metz zentroa (2010), *Sharjah Biennial 9*, Arabiar Emirerri Batuak (2009); *Line of sight*, Zendai Moma Museum, Shangai (2008); SCAPE Christchurch Biennial of Art in Public Space, Zeelanda Berria (2008); *AdosAdos*, Guggenheim Bilbao (2007); *Columnes*, Caixa Forum, Bartzelona (2006) eta Veneziako 51. Bienala (2005).



@maiderlopez.art

FICHA ARTÍSTICA:

Acción realizada por
Josune Garcia

Cámaras: Olga Ruiz y
Jone Novo

[Maidier López](#) artistaren *Personaje* lana, espazio publikoan gauzatzen den ekintzaz eta honen dokumentazioaz osatzen den proiektua da. Ekintzak, 2021eko apirilaren 12tik maiatzaren 16ra bitartean Bilbon egindakoa, hirian pertsonaia bat sortzea du helburu, pertsona bat espazio publikoan infiltratuz, denboran errepikatzen den eguneroko egoera bat eraginda.

Egunero, ordu berean, neska bat etxetik atera eta hiritik ibiltzen da landare bat garraiatzen. Hogeita hamar egunez ibilbide bera egiten du, banku berean esertzen da, merkatuan eta kalean espaloi berberetan zehar ibiltzen da, zebra-bide berak zeharkatzen ditu. Eguneroko ekintza, oharkabean pasa daitekeena edo hirian interferentziak eragin ditzakeena, oroitzapen bat sortuz, gurutzatzen den pertsonengan esperientzia bat sortuz, auzoko iruditeriaren zati bihurtuz.

Erakusketak 30 argazkiko bi argazki-serie ditu, bat egun bakoitzeko, bi bideo eta ekintzaren ibilbidea eta datuak biltzen dituen plano bat, bisitariak ekintza egitera, ohiko ibilbideetako pertsonaiak ikustera edo pertsona horiek benetakoak edo infiltratuak izango diren zalantzan jartzera gonbidatzen dituena.

ARTISTAREN HITZETAN

Personaje hirian pertsonaia bat sortzea da, pertsonaia bat espazio publikoan infiltratuz, egoera bat sortuta: neska bat etxe-ataritik irtengo da egunero hilabetez, eta landare batekin ibiliko da egunero ordu berean. Egunero ibilbide bera egingo du, eta ordu berean eseriko da banku berean, merkatuan eta kalean zehatz-mehatz ibiliko da espaloi berberetan zehar, zebra-bide berak zeharkatuko ditu. Koreografia bat espazio publikoan. Eguneroko ekintza da, denboran errepikatzen dena eta oharkabean pasa daitekeena edo hiri oztopatu dezakeena, gurutzatzen diren pertsonengan oroitzapen bat sortuz, auzoko iruditeriaren zati bihurtuz, espazio publikoko hiriaren parte.

Proiektuaren bitartez sinbolikoki auzoa eraiki. Proiektuak, ikusezina izateaz gain, hiriaren iruditeria berri bat eraiki dezake, auzoko pertsonaia berri bat, iruzkin batek zurrumurrua eragiten duenean bezala. Egunero ekintza bera egiten duen sasi-pertsona honen bidez istorio bat eraiki. Ekintza normala da, baina, aldi berean, arreta deitu dezake, landare bat egun batean mugitzea eguneroko zerbait izan daitekeelako, baina errepikatuz gero jakin-mina eragiten du. Dinamika bat eratu, eta zehatz eta doi-doi jarraitu. Errepikatzen den errutina bat, irudi bat, pentsamendu bat sortzen duena. Proiektuak hainbat irakurketa-geruza dauzka, eta gogoeta egiten du arte publikoaz, hiriaz eta irudi publikoaz, guztiok sare sozialetan pertsonaia bat, identitate berri bat sortzen dugun garai honetan, proiektuak pertsonaia berri bat sortzen du espazio publikoan.

IRUDIAK

LINK-A: [enlace](#)

LAIDA LERTXUNDI & REN EBEL

Laida Lertxundi & Ren Ebel

Notes on Working from Home.

A sculpture that allows my family to live

BIOGRAFIA

Laida Lertxundi (Bilbo, 1981) artista eta zinemagilea da, eta Los Angeles eta Euskal Herria artean bizi eta lan egiten du. Zorroztasun kontzeptuala eta plazer sentzuala uztartuz, bere filmek lurraren eta gorputzaren arteko paralelismoak egiten dituzte, plazer eta esperientzia gune diren aldetik.

Bere lanak hemen erakutsi dira: Whitney Biennial, NY, Hammer Museum, LIAF Bienal Biennale, Lyon, Frieze Projects New York. Halaber, hainbat museo eta galeriatan egon dira ikusgai, besteak beste, MoMa, NY, Tate Modern eta Whitechapel Gallery, Londres, Angela Mewes Berlin, Joan Los Angeles, Human Resources Los Angeles, MAK Schindler House ICA Museo de Arte Moderno de Medellín Kolonbia, CCCB, PS1 MoMA, Museum of Contemporary Photography Chicago, Baltimore Museum of Art, Kunstverein, Hanburgo, eta Habanako Bienala. Bere obra LUXek banatzen du Londresen, eta Reina Sofía Arte Zentroaren Museoko bildumaren parte da.

2020an euskal artearen Gure Artea saria jaso zuen.

Ren Ebel Kaliforniako Los Angeles hiriko artista bat da. Hainbat baliabiderek lan egiten du, hala nola bideoarekin, soinuarekin, testuarekin eta marrazkiarekin. Arte Ederretan graduatu zen, zinema- eta bideoarte-arloan, Kaliforniako Unibertsitatean, San Diegon, eta ikasketa-praktiketan masterra egin zuen Pasadenako (Kalifornia) ArtCenter College of Design-en. Bere bideo-lanak Los Angeleseko Echo Park Film Center-en eta Now Instant Image Hallen erakutsi dira, baita New Yorkeko Spectacle Theater-en ere. Bere idazkiak, Artforum, Mousse eta Friezen erakutsi dira.



www.laidalertxundi.com

www.renebel.com



@RenEbel



@laida_lertxundi

Laida Lertxundik eta Ren Ebelek egindako *Notes on Working from Home* instalazioan gogoeta jorratzen da etxeko bizitzari buruz, praktika artistikorako funtsezko material gisa hartuta.

Instalazioak zinemako, bideoko eta soinu-arteak hainbat lan ditu, Azkuna Zentroko auditoriumean begiztan proiektatuak, bai eta artisten testu eta irudien lagin bat ere (Chantal Akerman, Mierle Laderman Ukeles, Sophie Calle, Kenneth Tam, Grace Paley eta William Wegman barne), eguneroko lanaren zati ikusezin eta ohikoak euren lanaren atal integral gisa erabili dituztenak.

Proiektua amaitzeko, *Notes on Working from Home* pieza proiektatuko da, metraje landugabea eta editatu gabeko bi kanaletan egingo den aurkezpen batean; filmaren eritmoa eta sekuentzia, ausaz emango dira.

ARTISTEN HITZETAN

Artistak gara biok, eta 3 urteko alaba daukagu. Dauzkagun gastuak ordaintzeko lan egiten dugu, artea sortzeko, eta alaba hazteko eta etxea txukun mantentzeko lan egiten dugu. Lan batzuk, hala nola artista batek tailerrean egindakoak, koadro bat margotzea, eleberri bat idaztea, xarma itxurakoak dira. Beste lan batzuk -etxea garbitzea, platerak garbitzea, negarrez ari den neskatosa lasaitzea-, ez.

Film honen izenburua Mierle Laderman Ukeles artistaren lanetik dator. "Maintenance Art (mantentze-arte)" izendatu zuenean, lan moten arteko ezberdintasun horri heldu zion Ukelesek, batez ere hirurogeigarren eta hirurogeita hamargarren urteetako arteari zegokionez. Hain xarmagarriak ez diren baina arte gisa guztiz beharrezkoak diren lan-moduak testuinguruan kokatzean, ikusgai ezarri zituen etxeak, hiriak eta gizarteak martxan mantentzen dituen eta aurrerapen, matxinada edo asmakuntzako edozein ideia ahalbidetzen duen lan ikusezin eta baliogabeari.

Proiektu honek mugimenduan dauden bi irudiren forma hartuko du, bata nik eta bestea Renek zuzendua. Gutako bakoitzak bere aldetik erantzungo dio galdera honi: Erakutsi zure eguneroko errutina. Egin egun normal batean egiten dituzun gauzen zerrenda. Erabili zerrenda hori gidoi gisa film edo bideo baterako.

Gure lankidetzak artistikoak islatuko du familia-bizitzako ia alderdi guztietan elkarlanean aritzeko errealitatea. Elkarlanean horrela aritzeak etengabeko ahalegina eskatzen du oreka mantentzeko lanaren, jolasaren eta atsedeen artean, diruaren, denboraren eta giza energiaren artean, indibidualtasunaren eta intimitatearen artean. Oreka hori, gutxi gorabehera, ezinezkoa da une oro lortzea, baina, hala ere, lan-harreman iraunkor baten helburua da, eta etxe-sentimendua sortzen du. Félix González-Torresen Untitled (Perfect Lovers) (1992) obrako bi erloju sinkronizatuak bezala, ideal eder eta hauskorra da, zaindu eta babestu beharrekoa.

ELSSIE ANSAREO

Elssie Ansareo
BIO-INT-DÍA

BIOGRAFÍA

Elssie Ansareo. (Mexiko Hiria 1979) Arte Ederretan lizentziaduna da UPV/EHUtik. Bere lan artistikoarekin hainbat espaziotako erakusketetan parte hartu du, bakarka eta taldean: Bilboko Guggenheim Museoa, Fundación Gabarrón NY, La Casa Encendida Madril, Malagako Arte Garaikideko Zentroa, Artium (Gasteiz), Centre d'art La Panera, Marzana Espazioa, Cubo Azul eta Parisko Pavé d' Orsay besteak beste.

Bere ibilbidean Berdintasun Ministerioaren Arte Plastikoetarako INJUVE Saria eta Arte Plastikoetarako Endesa Beka jaso ditu. Bere azken argitalpena, "El Observatorio" da, histeriari buruzko ikerketa-proiektu bat, Deustuko Unibertsitatearekin elkarlanean egina.

Arte-bilduma garrantzitsuen parte da bere lana, besteak beste, hauena: Bilboko Guggenheim Museoa, Endesa Fundazioa, Bilboarte Fundazioa, Iruñeko Udala, Artium Museoa, Teruelgo Museoa, Unicaja Fundazioa edo Mediterraneo Zentro Artistikoa (MECA).



@ElssieAnsareo



@elssie_ansareo

FICHA ARTÍSTICA:

Argazkia eta Bideo-
zuzendaritza:
Elssie Ansareo

Ikus-entzunezko
produkzioa:
Fernando Díez Varela

Makillajea: Ana Vega

[Elssie Ansareo](#) artistak *BIO-INT-DÍA* proiektuarekin esku hartuko du Lantegia. Ideien laborategiko fatxadan, zehazki 21 leihoetan egindako instalazio fotografiko eta ikus-entzunezko irudiarekin, eta proiektio bat egingo du eraikinaren plano zeharrean kokatutako Eguzkiaren Pantailan

BIO-INT-DÍA (Bilbao-Interior-Día, Bilbo-Barnea-Eguna) izenburuak filmen gidoi teknikoen terminologia, kokapena eta argiztapen-asmoa ditu aipagai kasu honetan. Garai batean egunerokoa zen errealitatetik datorren fikzio baten eraikuntza narratiboa da.

Jarrera kontzeptual hori koloretako 21 argazki gisa aurkezten da, biniloan inprimatuta eta leihoetan itsatsita; gorputz-zatiak erakusten dituzte, eskuetan, ahoetan eta keinuetan zifratuta, minutu bateko bideo batez lagunduta. Proposamen sensorial eta hunkigarria lehen begiratuan, kolorez eta fantasiaz betea.

ARTISTEN HITZETAN

Forma aldetik, 21 argazki, 21 erretratu eta bideo bat dira.

Kontzeptu aldetik, berriz bisitatutako sentsualitatea, Howard Gardner-ek Egia, Ontasuna eta Edertasuna lanean bezala birformulatuta:

"Ez dago garapen estetiko jarraitzeko oztopo gaindiezinik."

"Edertasuna bizitzea norbere kontu bihurtu da."

"Lasai gogoratzen den esperientzia indartsua izatea da edertasunaren ezaugarria."

Emozio aldetik, bai lagundu zidan talde teknikoak, bai talde artistikoak, izateko arrazoi bat du proiektuan, parte hartu duen pertsona bakoitzak nire bizi-pultsua marraztu du eta marrazten du.

IRUDIAK

Making off: [hemen](#)

ELENA AITZKOA

Elena Aitzkoa
Ándromeda Túnel

BIOGRAFIA

Elena Aitzkoa. (Apodaka, 1984): Besteak beste, eskulturan, marrazketan, poesian eta performancean eta filmak egiten aritzen da. Haren sorkuntza-lanak ekosistema heterogeneo bat dira, eta ingurune gutxi-asko hurbileko elementu fisikoak eta emozionalak eta bizi-esperientziak dituzte oinarrian. Materiaren konfigurazio poetikoan jartzen du fokua eta sormen-energia, eta edertasuna hartzen du izakien arteko lotura-elementu gisa.

Azken proiektuen artean, hauek nabarmentzen dira: Zarza Corazón (2019), Valladolideko Museo Patio Herreriano; Paraíso Terrenal (2019) poemen eta txistuen biniloa; Nuestro amor nació en la Edad Media (2018) filma, eta Headscarfs close to the Ground performance-en zikloa, Oslo Pilot-en esparruan egina (2016).

Kolektiboki eta performancearen esparruan, nazioartean erakutsi du bere lana, herrialde hauetan: Ingalaterra, Italia, Japonia, Txina, AEBak, Portugal, Norvegia eta Suedian.



@ElenaAitzkoa



@aitzkoa

Sorkuntzari laguntzeko Babestu programaren baitako artista egoiliarak *Andromeda Túnel* aurkeztu du, BAT Espazioan *Lendia Song* erakusketan ikusgai dauden eskulturen inguruko performance seriea.

Performanceak goizero izango dira *Prototipoak, Arte Forma Berrien Nazioarteko Bienalean*, eta aintzira baten miazte intimoa jorratuko dute. Ibilbidea azaleratu nahi duen topaketa errepikatua. "Ahotsa, gidari arin gisa, material durundi egiten. Kantua, aitortzeko eta eraldatzeko leku gisa. Dantza, airearen dentsitateari pultsua hartze moduan. Arintasuna balizko lasterbide gisa. Eskulturan, gorputzez gorputz. Gu guztiok mugitzen. Belarri atzean ezer gabe. Linterna argia bekokian, Lendia tunela zeharkatzen. Galaxia bat dator. Liken berriak lakuko harrietan habia egiten, ametsetan ari den bitartean. Egun berria esnatzen ari da, beste behin".

ARTISTAREN HITZETAN

Aintzira batera iritsi, igerian. Aintzira batera iritsi, hegan. Hezetasunean, hegoak garden. Bulkada beltzetan astinduz -erreflexu iridiszentea-. Mendafinez, mendaz eta zurrumbiloz betetako aintzira batera iritsi. Argi zuria ertzean. Argi grisa haitzean. Besarkada bat bezala, laku bat. Uhin bat bezala, kontzientzia memoriarik gabea. Ilunabarreko xuxurlak belarri samurretan esnatze bakoitzean... oin kizkurren hego-astintze hezikaitza. Topatze basatia aintzira batean. Desegite samurra karen berdea lakio batean.

Luz cauce POEMARIO: [Link](#)

AMALIA FERNÁNDEZ

Amalia Fernández

Expografía retrospectiva

BIOGRAFIA

[Amalia Fernández](#) (Granada, 1970). Madrilen bizi da 1998tik. Jende askorekin ikasi duen arren, Mónica Valenciano du bere irakasletzat; 11 urtez lan egin zuen harekin El Bailadero konpainian. 2005ean, bakarkako lanean hasi zen, besteak beste, pieza hauekin: *Matrioshka*, *Kratimosha* eta *En Construcción*; *El resistente y delicado hilo musical* eta *Expografía*. Horrez gain, elkarlanari ere ekin zion, hala nola Shichimi Togarashi eta Juan Dominguez artistekin eta Perrita China eta Nilo Gallegorekin. Amalia Fernández, aldi berean, artistei laborategietan irakasten aritzen da, eta lyengar yogako irakaslea ere bada.



@AmaliaFernández

FICHA ARTÍSTICA:

Autorea eta zuzendaritza: Amalia Fernández

Performerrak:
Catherine Sardella,
Nines Martin, Óscar Bueno, Maia Villot De Diego, Nazario Díaz & Amalia Fernández

Amalia Fernándezen *Expografía retrospectiva (Atzera begirako espografía)* proiektuan hainbat egoera-objektu daude; performer-ek aktibatuko dituzte, eta horien edukia, instalazio-bertsioan, artistaren pieza eszenikoen atzera begirakoa da.

Zentroan egonaldia izan ondoren, publikoen komunitateek ezagutzen ez dituen korridore, hormarte eta txoko ezkutuz beteta dauden hiru eraikinetatik dabil artista. Egonaldi horretan eta espazioen ikerketa horretan oinarrituta, leku horietan berriz bisitatu ahal izango diren haren lehenagoko piezen zatiak erabakiko ditu. Site-especific proiektu hau guztiz lotuta dago gertatzen den espazioarekin, "arkitektura material eta fisiko bezala, lantoki moduan eta obra ekoizteko leku gisa".

Horrela, ondoz ondokoak ez diren zortzi orduko iraupena duen pieza honetan, AZko hiru eraikinak piezaren dramaturgiarako funtsezko gune bihurtuko dira. Bertan, sei performer-ek espazio horiek erabiliko dituzte museo-instalazio formatuko hainbat obra aktibatzeko, eta jendea haietan ibili ahal izango da (sartu eta irten), museo erraldoi bat balitz bezala. Esperientzia estetikoak da, iraupen luzeko formatukoa, eta hamahiru lan labur ditu, elkarren artean independenteak, zeinak 45 minutuz aktibatuko diren begizta batean.

ARTISTAREN HITZETAN

Nik uste dut obra honetan guztian indar handia jarri dudala estetikari, narrazioari harago. Ez dago narrazioari, edo narrazioa oso berehalakoa da. Hala, irudiak bere horretan, eragiten duen esperientzia estetikoak hartzen du guztia.

Estetika kontu hori dela eta, hasierako materialak itxuraldatu ditut, kokatu diren espazio fisikoak zentzu handia izan dezan. Espazioaren eta obraren arteko ariketa dialektikoa izan da ia. Itxuraldatze horiek denak oso interesgarriak iruditu zaizkit. Batzuk besteak baino hobeto biribilduak dira. Azkenaldian, iraupen luzeko formatuan ari naiz lanean, eta horrek irauteko (eraldatzeko) ahalegina eskatzen du, bai performer-arentzat, bai publikoarentzat. ESPOGRAFIA ere muturreko ildo honetakoa da.

Espografian une hartan neuzkan bi bulkada batu zitzaizkidan: Erakusketa bat sortzea pieza eszeniko baten ordean, eta erakusketa performer-ek aktibatzea, museoetako behin-behinekotasunarekin; eta neure lanak erabiltzea erakusketa horretako "pieza" bakoitza haietatik ateratzeko, aldi berean bi dimentsio emanez: eszenikoa erakusketara lekualdatzea, eta artista baten obraren atzera begirako izaera.

Esan liteke Espografía ordura arte egin nuen guztiaren oso bestelakoa dela, batez ere formatuagatik eta muntatzeagatik, baina, egia esan, distantzia pixka batekin, konturatzen naiz beste jauzi bat besterik ez dela, gauza berberen bariazio, konbinazio, transposizio, itzulpen eta errepikapenetan. Horrela, nire buruari erakutsi nahiko banio bezala formen jolas infinituak espazioan eta erritmoen joko infinituak denboran itxuren beloan zehar agerian utzitako azpikoa batasuna besterik ez dela: forma aldakorren dantzaren atzean gordeta dagoen zerbait.